

# Durangotik Kizkitzara



**Jakoba Errekondo**  
jakoba@bizibartztea.eus

Landareak lantzeko 2018ko gida liburuarekin erotu samartuta nabil batetik bestera. Eromena lehertu da Durangon. Jendeak ikaragarritzko grina du landare kontu honetan; gero eta handiagoa. Batzuk jakin-minez, beste batzuk hau eta hura galdezka, zenbaitek kargu hartu ere bai halako esan izan dudalako, mordoxka bat baita erakustera ere. Horiek ditut gustukoen. Etxean edo herrian zer ikusi eta ikasi izan dutena erakusten dutenen eskola da *Bizi Baratztea*. Ikasle eta irakasle batera. Eman eta hartu.

Irakasle horietako bat Ezkioetik etorri zitzaigun. Aspaldi bila eta aurkitu ezinik dabilen landareren baten galdezka zetorren, eta ikasteko zuena erakusten jarri genuen. Arakatzaz (*Ribes uva-crispa*) zuen gaia. Ez duela aurkitzeko pulamenturik egiten, eta ea non edo han topatzeko aukerarik ezagutzen ote nuen. Ustez bide egokia erakutsi ondoren, beraiek arakatza nola deitzen duten errepikatze eskatu nion, eta Ezkion “arkazune” esaten diotela.



CALLE EKLUND

*Arakatz (Ribes uva-crispa).*

Astelehenean, Durangoko sukarrari buelta emateko ahaleginean, sutondotik jarri nuen “arkazune” hitza eta bere argazkia Bizi Baratztearen Instagramen, eta horma horretatik errebotean baita Facebooken ere. Eta haietan eromena berpiztu. Felixek dio Otxandion “agarratza” esaten diotela, Rosinak Arrietan “angarratza” erantsi, Imanolek Matxinbentatik “indi-mahatsa” diotela.

Behin metxa piztuta, neroni hasi naiz bateko eta besteko hitz biltegietan: arakatx, algarratx, algarratz, argarrax,

argaratxe, larmats, larre-mahats, lahar-mahats, mahats-lahar, urritxilu eta zenbaitek baita arkakarats ere.

Frantsesek “berdelaren arakatz” deitzen diote. Inondik ere, arrain horren laguntzaile jateko ohitura dute. “Arkazuna” deitzen dioten Ezkioetik ez da urruti Itsasoko Kizkitzako ermita, berdel arrantzaleen debozio bereziko ama birjina duena. ■

## IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

**Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.**

**Kaixo Jakoba, permakultura erara jarria dugu baratzea, eta azkenaldian barazki artean perretxiku batzuk ari zaizkigu ateratzen. Zer esan nahi du horrek? Eta desorekaren baten adierazle balitz, zer egin genezake zuzentzeko?**

**Bego Tapia (Altzo)**

Kaixo Bego. Perretxikoak azaltzeak gauza bat adierazten du nabarmen: hezetasuna dago. Baina baita ere bizitza asko dagola lur horretan. Horixe bilatzen da lurrean landareei azpiak egiten zaizkienean.



Arazoa izan dezakezu hezetasun hori gehiegizkoa bada eta lehorzaleak diren landareak jartzea. Horri aurre egiteko taulenetan edo baratzeke zatietan tontorrak egin. Lurra bera tontortu edo egurrekin, harriekin edo dena delakoarekin lurra altxa hezetasun horri ihes egin eta lur harroa eta lehorragoa izateko.